

MUSKIZEN ERROLDATUTAKO IKASLEEK LIBURUAK ETA ESKOLAKO MATERIALA EROSTEKO 2024. URTEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

1. X E D E A

Deialdia honen xedea da aurtengo ikasturtean eskolako materiala erosteko dirulaguntzak eskatzeko eta jasotzeko baldintzak arautzea, **DERRIGORREZKO LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT SOILIK.**

2. AURREKONTUA ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hezkuntza Sailak 25.000 euroko aurrekontua du, onartutako eskabide guztien artean modu berdinean banatzeko.

3. O N U R A D U N A K

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea dute Muskizen erroldatuta dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein pribatuetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleek.

4. K A N P O A N G E R A T Z E A

Espresuki dirulaguntza deialdi honetatik kanpo geratzen dira 7. eta 8. atalean ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak.

5. E S K A T U T A K O A G I R I A K

- 1) Eskaera-orria behar bezala beteta: Muskizko Udalari baimena eman beharko zaio Ogasunarekin edo ikastetxeekin beharrezko informazioa biltzeko.
- 2) Guraso edo tutore eskatzailearen NANaren, pasaportearen edo baliokidearen kopia.
- 3) Familia-liburuaren kopia.
- 4) Familiaren egoitzako bizilagunek egindako errenta aitorpen guztien kopia.
- 5) Banantze edo dibortzio kasuan, hori egiaztatzen duen agiriaren kopia.

Aurkeztu den dokumentazioa osorik ez balego, hamar eguneko epea egongo da osatu edota zuzentzeko. Hala egiten ez bada, eskabidea deuseztatu egingo da.

Nolanahi ere, aipatutako jarduerarekin lotuta aurkeztutako dokumentazioaz gain, Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahalko du.

6. E S K A E R A E P E A

2024ko irailaren 18tik urriaren 4ra.

7. BETEBEHARREKOAK

- ✚ Udaleko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- ✚ Ikasleak Muskizen erroldatuta egon beharko du eskaera egiteko unean.

8. ESKABIDEAK BALORATZEKO ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Eskabideak honako irizpideen arabera baloratuko dira:

- a) Familia bakoitzeko kide kopurua.
- b) Familia bakoitzeko diru-sarrera guztiak.

Ondoko taulan adierazten diren kopuruak baino txikiagoak izan beharko dira aurreko urteko diru-sarrerak (errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorra).

Familia-kide kopurua (seme-alabak barne)	2	3	4 edo gehiago
Dirulaguntza jasotzeko gehieneko diru-sarrerak:	20.191,50 €	21.807,00 €	23.422,11 €
Ikasleak desgaitasunik balu, kopuru hauek % 15 igoko dira	23.220,23 €	25.078,05 €	26.935,43 €

Dirulaguntzen zenbatekoa honela kalkulatu da: Udalak laguntzetarako ezarritako zenbatekoa zati onartutako eskabide kopurua egingo da. Dirulaguntza gehienez 180 eurokoa izango da.

9. EBAZPENA JAKINARAZTEA

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, eta dagokien diru-kopurua bankuan sartuko zaie ondoren.

10. DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETAK

Dirulaguntzak ez dira justifikatu beharko ordainketa egin ondoren.

Muskizko Udalak eskatzaileei dirulaguntza itzultzeko eskatu ahalko die aurkeztutako agiriak edo datuak egiazkoak ez direla frogatuko balitz.

11. DATUAK EGIAZTATZEA

Udalak ikastetxeekin trukatu ahal izango du beharrezko informazioa, eta eskatzaileak ikastetxearekin edo guraso-elkartearekin zorrak baditu, laguntza hori zuzenean ordaindu ahal izango die erakunde horiei, eta zorra zenbateko horren arabera murriztuko da. Era berean, udalaren edo Foru Ogasunaren informazio ekonomikoa eskatu ahal izango du, aurkeztutako datu ekonomikoak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Ez da onartuko Udalarekin edozein zor dutenen dirulaguntza eskaerarik.